

Lan baldintzak hobetu, hezkuntza eraiki! Larunbatean manifestazioak

EAEko unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoan greba eta mobilizazio fase batean barneratuak gaude LAB, ELA eta Steilas sindikatuak.

Larunbat honetan, maiatzak 20, familiei gure aldarrikapenekin bat egin dezaten eskatzen diegu eta parte har dezaten eguerdian **hiru hiriburutan egingo diren manifestazioetan**. Izan ere aspaldian pairatzen ditugun murrizketa neurriek eta lege inposizioek haien seme eta alabei zuzenki eragiten die ere.

 **BILBO 12:00tan Jesusen Bihotza**

DONOSTIA 12:00tan Alderdi Eder

GASTEIZ 12:00tan Bilbo plaza

Bertan elkar ikusiko dugulakoan, mila esker aldez aurretik.

Lan baldintzak hobetu, hezkuntza eraiki!